

Asisko gutuna

2017ko Abuztua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

106. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bigarren printzipioan barnera begiratzan saiatzen gara. Baina barnera begiratzeko era edo modu ezberdinak daude. Begira dezakegu geurez, eta orduan falta zaiguna ikusiko dugu. Edo begira dezakegu Jainkoaren begiradapetik, hau da, Jainkoaren seme-alaba ikuspegitik, eta orduan ikusiko dugu berak osatzen duela gure hutsunea.

Horixe gertatzen zaigu leialtasunarekin: bere maitasunak irekitzen digu bihotza leialtasunean bizitzera.

Gogoetarako gaia

Leial izan

A zer nolako balioa ematen diogun leialtasunari! Adiskide leial bat ezin da ordaindu. Izan ere leialtasunak merezi gabeko konfiantza agertzen digu, doanekoa... arrazoirik gabekoa. Leialtasunak edozein arrazoitatik haratago doan loturaz hitz egiten digu, debaldeko maitasunez hitz egiten digu, interesik gabekoez; baina baita pertsonen aldeko apustuez, erabaki sendoez, iraupenez...

Ez da erraza leialak izatea. Ez besteekiko ez geurekiko. Hain zaila egiten zaigu geure bihotza eskutik edukitzea! Nork hartzen du bihotz hori menpean, gutxien uste dugunean aurreko horri ez dagozkion apetak agertzen zaizkionean? Geure buruari hauxe aitortzera iristen gara: "Ene barrena inork ez ikustea nahiko nuke, bihotz desleial bat agertuko litzakeelako."

Honek, hausturarik gabeko ustezko leialtasunaren koherentzia batean ezin gabela oinarritu aitortzera garamatza, baizik eta hauskorra dela dakienaren apaltasunean; eta horrexek garamatza geure tranpa eta interesetan ez erortzea bilatzera. Hauskorrak gabela jakinik laguntza bilatzen dugu, euskarriak bilatzen ditugu, horrela egian eta leialtasunean ibili ahal izateko.

Laguntza eskatzen diegu konfiantzazko ditugun pertsoneri, eta laguntza eskatzen diogu Jainkoari, leialtasunez bizitzen lagun diezagun; gure hutsegite eta oztopoen artean berarengan itxaroten jarrai ahal dezagun. Eta horrela jabetu gaitezen altxor paregabea, bere erabateko maitasuna, buztinezko ontzietan daramagula; jabetu gaitezen nahiz eta gu leialak ez izan, berak beti leial jokatzen duela. Eta horixe da leialak izaten ahalegintzera bultzatzen gaituena.

Ebanjelioko pasartea: Jn 1, 10-15

Munduan zegoen eta mundua haren bidez egin izan arren, mundukoek ez zuten onartu. Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odolekoak, ezta gizakiaren borondatez sortuak ere, Jainkoarengandik sortuak baizik. Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen. Ikusi dugu haren Jainko-aintza, Aitarengandik maitasun eta egiaz bete datorren Seme bakarrari dagokion aintza.

Frantziskotar espiritualtasuna

Horrela jokatzen eta horretan azkeneraino iraungo duten gizon-emakume guztien gain *Jaunaren Espiritua kokatuko da* eta beraiengan izango du bizileku eta egoitza. Eta zeruko Aitaren seme-alaba izango dira, haren obrak egiten baitituzte. Eta Jesu Kristo gure Jaunaren senar-emazte, anai-arreba eta ama dira. Haren senar-emazte gara, arima zintzoa Espiritu Santuaren bidez Jesu Kristorekin bat egina dagoenean. Haren anai-arreba gara, *zeruko Aitaren nahia egiten* dugunean. Haren ama gara, *bihotzean eta gorputzean* daramagunean maitasunaren eta kontzientzia garbi eta egitiaren bidez, eta hartaz erditzen garenean jokaera santuaren bidez, beronen etsenpluz besteei argi egin behar baitiegu (2 FeG 48-53).

Frantziskok bere bizitzaren zentzua aurkitu du Jesu Kristori jarraituz, eta Hura bizi du bere bizitzako maitasun gisa. Horregatik Harenganantz zuzentzen du bere pertsona osoa, asmo horretatik ezerk aldentzen ez duelarik. Frantziskoren leialtasunak erantzun egiten dio Jesusengan Jainkoak agertu dion leialtasunari. Jesus bihotz garbiz onartzen duenak ezin du harentzat bizi besterik egin.

Otoitza

Tristeza da, eta tristeza delako, aitortu egiten dut;
hemen nago ni eta oihukari nator,
bestela esanda, lainoan murgilduta;
ene ahotsak lertxunen artean urkatuz.

Izerdia ogi honen bidez irabaziz,
bizitza eskuez irabaziz,
atseginaren bidez oinazea irabaziz,
inbidia salmoaz irabaziz.

Heriotza biziaren bidez irabaziz,
dena lanturik gabe lortuz noa,
zeren eta egutegiari begira janzten
eta meditatzen duen emakume adoretsua bai-
naiz.

Tristeza da, eta tristeza delako, aitortu egiten dut;
lanak ditu nork bere burua bentzutzeak;
halere, saia zaitetz etsaia besarkatzen
eta ikusiko duzu argia darizula saihetsetik.

Gloria Fuertes

Gutuneko azken hitzak

“Nik badakit nortaz fidatu naizen eta ziur nago baduela hark indarririk ni zaintzeko”. (San Paulo)

2017ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate abuztuko erreferentzia guztiak:

1 Mt 13, 36-43	8 Mt 15, 1-2.10-14	15 Lk 1,39-56	22 Mt 19, 23-30	29 Mk 6, 17-29
2 Mt 13, 44-46	9 Mt 25, 1-13	16 Mt 18,15-20	23 Mt 20,1-16	30 Mt 23, 27-32
3 Mt 13, 47-53	10 Jn 12, 24-26	17 Mt 18, 21-19,1	24 Jn 1, 45-51	31 Mt 24, 42-51
4 Mt 13, 54-58	11 Jn 15, 4-10	18 Mt 19, 3-12	25 Mt 22,34-40	
5 Mt 14, 1-12	12 Mt 17, 14-20	19 Mt 19, 13-15	26 Mt 23,1-12	
6 Mt 17, 1-9	13 Mt 14, 22-33	20 Mt 15, 21-28	27 Mt 16, 13-20	
7 Mt 14, 13-21	14 Mt 17, 22-27	21 Mt 19, 16-22	28 Mt 23,13-22	

Geure web gunea bisitatu



www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abuztuko otoitzaldia 31an izango da.